IMQ
Zaintzen zaitugu

## ZU ZAINTZEN JARRAITZEN DUGU

# #EtxeanGeratuZaitez
# GARRANTZITSUENA ZURE OSASUNA DA

**Une honetan etxean geratzea da Covid-19ren hedapena saihesteko neurri nagusia; beraz, zure osasuna, familiarena eta guztiona zaindu nahi baduzu, ez zaitez kalera irten; eta, hala egiten baduzu, izan dadila benetako larrialdiagatik. Horrela, gaixotasuna kontrolatzen eta saihesten lagunduko duzu, gure osasun-sistemaren kolapsoa prebenituz.**

Behar izanez gero, IMQn lanean jarraitzen dugu osasun-agintariekin koordinazio estuan, pandemia horrek eragindako ezohiko larrialdi-egoera kudeatzeko, uneak eskatzen duen erantzukizunarekin, dagoen premiari erantzuteko gure aldetik behar diren eta jarri ditzakegun giza baliabideak, materialak eta ekipamendu guztiak eskainiz.

Bizi dugun ezohiko egoera honetan, gure nahia da, ahal dugun neurrian, gure bezeroen eta gizarte osoaren eskura egotea osasun-larrialdi horren aurka elkarrekin ekiteko. Horregatik, gure helburu nagusia izango da bezeroari, eta batez ere pazienteari eskaintzen diogun arreta zaintzea.

Ahaleginak lehentasunen arabera antolatzeko, jakinarazten da konpainiak honako neurri hauek hartu dituela:

## ASEGURUDUNARI ARRETA:

- Pandemia ofizialki dekretatua izan arren, IMQk mediku-aseguruarekin COVID-19a estaltzen du.

- **IMQk bezeroentzako arreta-bulegoak zabalik ditu** Bilbon, Getxon, Gernikan, Gasteizen eta Donostian, gutxieneko zerbitzuekin eta larrialdi-kasuetarako ezinbesteko kudeaketetarako. Hala ere, jendeari arreta emateko ordutegia murriztuko da, **astelehenetik ostegunera 8:00-15:00 eta ostiraletan 8:00-14:30**. Ahal den neurrian, agintarien gomendioak jarraituz, justifikatutako arrazoirik gabe kaletik mugitu gabe, langileen osasuna zainduz eta lanaldi zatituak eragingo lituzkeen lekualdaketak bikoiztea saihestuz.

- Horrez gain, asegurudunen eskura jartzen ditu bere call centerreko telefonoak (**bezeroari arreta emateko 900 81 81 50** doako telefonoa, **larrialdietarako 900 53 50 47** telefonoa eta **IMQ Laguntza 900 10 70 61** telefonoa, adinekoei zuzendutako aholkularitza soziosanitarioa emateko). Hala ere, eskatzen da **benetan premiazkoak diren gai eta egoeretarako baino ez deitzea**, telefonogunea ez kolapsatzeko eta benetan beharrezkoak diren kasuak artatzeko, zailtasunik gabe. Helbide elektroniko hau ere erabilgarri dago: imq@imq.es

- MQk online bulegoa ere badu eta hainbat administrazio kudeaketa eta izapide telematikoki egiteko aukera ematen du: oficinaonline.imq.es, Kudetzaile pertsonalaren eta IMQ Apparen bidez. Preskripzio digitaleko zerbitzua ere abian jarri denez, une honetan ez da beharrezkoa zure bulegoetara joatea zenbait baimen eta kontsulta-orri izapidetzeko, proba diagnostikoak egiteko eta espezialitate batzuei kontsulta egiteko.

## PAZIENTEARI ARRETA

### Sintomak baditut: eztula / sukarra / arnasteko zailtasuna, zer egin behar dut edo nora jo behar dut?

EZ duzu kontsultetara edo osasun-zentrora joan behar. Etxean geratu behar duzu eta harremanetan jarri:

1. IMQko zure familia-medikuarekin (lanegunetan)

2. IMQko etengabeko arretarako zentroekin (lanegunetan)

3. Erantsitako zerrendako osakidetzako zentroekin

https://www.euskadi.eus/coronavirus-zonificacion-de-la-atencion-primaria-en-todo-euskadi/web01-a2korona/es/

4. IMQko Larrialdietarako 900 53 50 47 telefonoarekin.

## BIZKAIA

### Astelehenetik ostiralera

- Zure familia-medikuarekin kontsultako ohiko telefonoan
- Bilboko **IMQ Colón Osasun Zentroaren** Etengabeko Arretarako telefonoan: 94 424 24 62
- Barakaldoko **IMQ Barakaldo Osasun Zentroaren** Etengabeko Arretarako telefonoan: 946 45 40 40
- Getxoko **IMQ Las Mercedes Zentroaren** Etengabeko Arretarako telefonoan: 676 18 45 65
- **Etxeko Larrialdietarako** telefono zerbitzua: 900 53 50 47

### Asteburua / jaiegunak

- **Etxeko Larrialdietarako** telefono zerbitzua: 900 53 50 47

## ARABA

### Astelehenetik ostiralera

- Gasteizko **IMQ Amárica Osasun Zentroaren** Etengabeko Arretarako telefonoa: 945 14 66 00

### Asteburua / jaiegunak

- **Etxeko Larrialdietarako** telefono zerbitzua: 900 53 50 47 / 606 613 065

## GIPUZKOA

### Astelehenetik ostiralera

- Donostiako **IMQ Zurriola Osasun Zentroaren** Etengabeko Arretarako telefonoa: 943 32 35 00

### Asteburua / jaiegunak

- **Etxeko Larrialdietarako** telefono zerbitzua: 900 53 50 47

### Ospitale batera banoa, koronabirusaren proba egingo al didate?

Proba hori egiteko ez duzu ospitalera joan behar. Gaur egun, ospitaleetan eta anbulatorioetan proba ez zaio pertsona guztiei egiten.

Proba egiteko irizpidea klinikoa eta epidemiologikoa da. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren protokoloak ezartzen du, eta gaixoek beren bilakaera klinikoaren arabera jasoko dituzte jarraitu beharreko gomendioak.

### Posible al da koronabirusaren proba modu pribatuan egitea?

Une honetan, Osasun Sailak ezarritakoa irizpideen arabera egiten da proba, eta osasun-agintarien eskumeneko zentroetan baino ez dago eskuragarri.

### Mutualitateko naiz, berdin artatuko naute osasun sistema publikorik izan ez arren?

Osasun publikoko gaia da eta zure kasua gainerako biztanleena bezala artatuko da.

### Pandemiarekin zerikusirik ez duten gainerako larrialdiak

Pandemiarekin zuzenean lotuta ez dauden gainerako larrialdi batzuetarako, hurrengo protokoloa ezarri da:

- Ez joan zuzenean kontsultara edo osasun-zentrora. Lehenengo, deitu medikuari eta honen argibideak jaso.
- Zure medikua aurkitzen ez baduzu, jarri harremanetan IMQren larrialdietako telefonoarekin: 900 53 50 47
- Ez erabili, inolaz ere, bide horiek premiazkoak ez diren gaietarako edo garrantzirik gabeko informazio biltzeko. Horrela, benetan hala eskatzen duten egoerei arreta egokia ematea ziurtatuko dugu.

**IMQ**
Zaintzen zaitugu

**Premiazkoak ez diren** kontsultetarako, IMQren App korporatiboa erabil daiteke; **txat medikoa, aholkulari medikoa eta bideo-kontsulta** eskaintzen ditu.

## IMQ ZENTROAK

**OSPITALEAK**: Gure ospitaleek, I**MQ Zorrotzaurre Klinikak** eta **IMQ Virgen Blanca Klinikak**, **24 orduz** lan egiten dute osasun-agintariekin koordinatuta, egoerari aurre egiteko, agintari eskudunek ezarritako eta derrigorrez bete beharreko protokoloak eta prozedurak jarraituz.

**KONTSULTA ANITZEKO ZENTROAK**: Gure kontsulta anitzeko zentroak, **IMQ Colón**, **IMQ Barakaldo**, **IMQ Amárica** eta **IMQ Zurriola**, zabalik daude larrialdietarako soilik eta honako argibideak jarraituz

## OSASUN MINISTERIOAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN GOMENDIOEI JARRAITUZ, PAZIENTEEI HONAKO HAU JAKINARAZTEN ZAIE:

1 **EZ DIRA ZENTROAN SARTU BEHAR arnas sintomak eta/edo sukarra eta/edo eztula duten pertsonak,** edo koronabirusak kutsatutako edo koronabirusagatik ikertutako pertsona baten ondoan egon direnak.



2 Egoera horretan egonez gero, kaltetuek etxera itzuli beharko dute eta IMQko familia-medikuari deitu (lanegunetan)



3 **Era berean, GURE ZENTRORA ERE DEI DAITEKE:**
**IMQ Colón: 944 24 24 62**
**IMQ Barakaldo: 946 45 40 40**
**IMQ Amárica: 945 14 66 00**
**IMQ Zurriola: 943 32 35 00**
eta beharrezkoa izanez gero, gure medikuak harremanetan jarriko dira telefonoz.




Zentrora joanez gero, **GEHIENEZ ERE LAGUNTZAILE BAKARRAREKIN SARTU DAITEKE, ETA KORRIDOREETAN IBILTZEA SAIHESTU BEHAR DA**. Horrela, kutsatzea eta infekzioak eragitea ekidingo dugu.

GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE SANIDAD

*Informazio gehiago hemen: https://www.mscbs.gob.es/*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IMQ
Zaintzen zaitugu

## HORTZ-KLINIKAK, PODOLOGIA, ERREHABILITAZIOA ETA KIROLA

- **Doña Casilda (Bilbo), Avenida (Vitoria-Gasteiz) eta Zurriola (Donostia) hortz-klinikek larrialdiak** baino ez dituzte artatuko. Doña Casildako balizko premiazko kasuak zentroko 94 609 13 66 telefonoan, Avenidakoak 685 632 027 telefonoan eta Zurriolakoak 659 948 900 telefonoan artatuko dira.
- **Areeta eta Bilbon, Deustuko hortz-klinikak i**txita egongo dira, baita **gure errehabilitazio, kirol-medikuntza** eta **podologia** zentroak ere.
- **Errehabilitazioa: larrialdietarako 94 423 93 22 telefonora deitu.**

## PREBENTZIO NEURRIAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

Une honetan, birusa ez zabaltzeko eta agintari publikoak eta osasun-langileak zentzu horretan egiten ari diren ahaleginetan laguntzeko neurririk onena etxean geratzea da.



IMQ
Zaintzen zaitugu

**Eskuak behar bezala garbitzea**




## BESTELAKO INFORMAZIOA



Koronabirusari buruzko informazio gehiago




Kutsatzeak saihesteko gomendioak



Euskadiko egoera